



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko abuztuaren 8an, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak:

– Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Merino Iriarte, Juan Esteban

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONETSI

Eta eragozpenik agertu ez baita, onetsi dira 2023ko ekainaren 1 eta 15an eta uztailaren 6an egindako bilkuren aktak.

BIGARRENA.- KULTUR OLA ERAIKINEKO TABERNA-JATETXEKO KUDEAKETAREN KONTRATUA ESLEITZEKO LIZITAZIOA.

Hainbat bilera egin dira Kultur Olako taberna-jatetxea kudeatzeko kontratua esleitzeko baldintzen proposamena prestatzeko. Zirriborria osoko bilkura honetan aurkeztu da. Klausulak aztertuta, erabaki da Kontratazio Atarian iragartzea Orbaizetako Munizio Olako Jauregiko (Aezkoako Kultur Ola) eraikineko taberna-jatetxea kudeatu eta ustiatzeko kontratua esleitzeko lizitazioa

Pleguaren xede den kontratazioa Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 72., 138. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera esleitzeko da prozedura irekiaren bidez, Europako Batzordeak ezarritako mugatik beherako balio zenbatetsia duten kontratueterako, izapidetze arruntaren bidez. Lizitazioa elektronikoki egingen da Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez. Interesatuak 2023ko abuztuaren 27ko 23:30ak arte aurkez ditzakete beren proposamenak, Nafarroako Lizitazio Plataforma PLENAREN bitartez. Lizitazioaren prezioa urtean 2.400,00 eurokoa (bi mila eta laurehun euro) da, edo lizitatuzaileak bere eskaintzan zehaztutakoa, handiagoa balitz. Kontratua urtebeterako da, eta beste 4 urtez luza daiteke, gehienez ere 5 urte egin arte.

Halaber, erabaki da ohar bat egitea, lizitazioan parte hartzeko interesatuko pertsona edo enpresek, lantokia ezagutzeko, instalazioak ikustera joateko bisitaldia eska dezaten.

HIRUGARRENA.- IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA ONESTEA

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiarekin hitzarmena sinatu ondoren, Aezkoa ibarra digitalizatzeko proiektura bideratutako zuzeneko dirulaguntza kobratzeko, beharrezkoa da Aezkoako Batzarre Nagusiak iruzurraren aurkako neurrien plan bat onartzea. Eskakizun hori bera da Next Generation funtsak jasotzen dituzten erakunde guztientzat.

Europar Batasuneko Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen NextGenerationEU (NGEU) programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari erantzuteko pizgarri ekonomiko gisa. Suspertzeko eta Erresilientziarako Mekanismoa (MRR) da, eta lau helburu ditu: EBren ekonomia, gizarte eta lurralde kohesioa sustatzea; estatu kideen erresilientzia eta doitzeko gaitasuna

indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak arintzea; eta trantsizio ekologiko eta digitalak babestea.

Helburu horiek lortzeko, estatu kide bakoitzak Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazional bat diseinatu du. Plan horretan, helburu horiek lortzeko beharrezko erreformak eta inbertsio-proiektuak jasotzen dira, eta PRTRn planteatutako ekimenak gauzatzeko, Administrazio Publikoek kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitu behar dituzte. Arintze neurri batzuk abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri ziren, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta PRTR betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen. Gainera, kudeaketa sistema bat eratu eta garatu behar da, Europako Batzordearen zerbitzuei ordaintzeko eskaerak eraginkortasunez izapidetzea erraztuko duena.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuak Ogasun eta Funtzio Publikoak HFP/1030/2021 Agindua onartu du, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duena. Bertan, PRTR betearazteko Erkidegoko araudiak ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko jarraibideak ezartzen dira, eta horietako bat da iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.

Iruzuraren aurkako neurrien planaren helburua da Aezkoako Batzarre Nagusiaren esparruan Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako azpiproiektu eta jarduketari lotutako iruzurra, barnekoa zein kanpokoa gutxitzea, iruzurraren arloan esleituta dituen eskumenak (soilik administratiboak) kontuan hartuta. Iraupen mugagabea du, baina aldizka berrikusiko da, bi urtean behin, eta, edonola ere, iruzurraren arriskuaren, inpaktuaren eta arriskuaren ebaluazioa berrikusiko da beharrezkoa denean, iruzur kasuren bat detektatu delako edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsuak izan direlako.

Halaber, salaketa kanal bat sortzen da helbide elektronikoko espezifiko baten bidez.

Iruzuraren aurkako neurrien plana berrikusi ondoren, Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du plana onestea eta erakundeen web-orrian argitaratzea. Handik salaketa kanalera ere sartu ahal izanen da.

LAUGARRENA.- CEDERNA-GARALUR ELKARTEARAKO ORDEZKARITZAK: ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA BILTZAR OROKORRA.

Maiatzeko tokiko hauteskundeak egin, eta, horren ondorioz, udal batzuk berrituta, Cederna-Garalur Elkarteak prozesu bat sustatu du, Elkartean eskualdeko ordezkariak izateko hautagaiak izendatzeko eta Elkartearen Biltzarrerako ordezkari berriak izendatzeko. Osoko Bilkurari jakinarazi zaiola, Batzarre Nagusi honetan ez denez kargurik berritu, Elkarteari jakinarazi zaiola 2020an izendatutakoek jarraituko dutela, hots, honako hauek: Merino jaunak, Aezkoako Batzarre Nagusiko ordezkari Cederna Garalur Elkartearen Batzar Orokorrean, eta, ordezko, Batzarre Nagusiko presidenteak. Osoko Bilkurak jakinaren gainean gelditu da.

BOSGARRENA.- AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZU GUNEKO PREZIOAK

Proiektu hau oraindik bukatu gabe dagoenez, ur eta argi instalazioak egitea falta delako, ezin da martxan jarri zerbitzu-eremu gisa, baina

parkimetroa instalatu behar da jada, eta hasieran zehaztutako prezioekin programatu behar da. Batzarre Nagusiko Osoko Bilkurak erabaki du hamar euro/eguneko prezioa ezartzea, eta zenbateko hori agertuko da jaulkitzen den tiketari. Elektrizitatea eramateko aurten egiten ari den proiektua bukatutakoan, martxan jarriko dira gainerako zerbitzuak eta eremuaren funtzionamendu osoa zehaztuko da.

SEIGARRENA.- ABELTZAINZA BATZORDEKO INFORMAZIOA

Presidente jaunak jakinarazi du bilera bat egin dela Sariozar eta Orionera ganadua eramaten duten abeltzainekin, bi lekuetakoek erabiltzen duten Irongo itxiturari buruz hitz egiteko, bertan egindako obrek zenbait kalte eragin baitute. Une honetan, Sariozarko ganadua bakarrik (txahalak izan ezik) sartzen da Irongo itxiturara, eta asmoa dago aurrerago hori gainerako buruekin elkartzea, behin zezenak erretiratuta. Egindako lanek arazo ugari eragin dituzte: pasabideak irekita utzi dira, ganadua bideratu behar izan da egon behar ez zuen eremuetara, eta abar; eta oraindik arazo gehiago ager daitezke, txahalak ernari gelditu badira. Hori guztia aztertu zen bilerara joandako pertsonekin, eta erabaki zen ezinegona helaraztea obren enpresa sustatzaileari, Acciona Energiari, zeinarekin harremanetan egon den etengabe. Orain, leku guztiak itxi dira berriro, eta lan horren kostuak sustatzaileari aurkeztuko zaizkio. Gerora jakinen da aziendari egiazki eragindakoa.

Aurki, linearen ibilbide osoa aztertuko da, egin behar den zuzenketak jakiteko; Irabiako pistan ere zenbait kalte antzeman dira: hormigoizkoak diren tarte apurtuta hondatuta daude; eta linearen trazadurarako bota diren zuhaitzak baloratu eta enkantean jarri beharko dira.

ZAZPIGARRENA.- ZENBAIT

- Urrobi Partzuergoa

Jakinarazi da Erroko Udalak Urrobi Partzuergoan aritzeko egin dituen ordezkarien izendapenak.

- Turismo ahalmenari buruzko inkesta.

Garapen agentearekin aztertu da Iratiko turismo ahalmenari buruzko inkesta bat egitea bisitarien artean. Inkesta leku hauetan banatuko da: turismoari arreta emateko guneetan, establezimenduetan, webguneetan eta abarretan, eta paperean zein QR sarbide baten bidez eginen dira. Une hontan hasi sa inkesta zabaltzen, eta datozen egunetan jarraituko du.

- Lotespen juridikoko burtsaren egoera berrikustea.

Jakinarazi da zertan dagoen aurrekontuen exekuzioa, lotespen juridikoko burtsari dagokionez, eta erabaki da informazio hori aldi berean behin prestatu eta ematea, exekuzioa zertan den jakiteko.

- Baso-loteen enkantea.

2023ko aprobetxamendu planean sartu beharreko loteak zehaztea eta onartzea eskatu da, enkantea lehenbailehen egin ahal izateko.

ZORTZIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK.

Ez da galde-eskerik egin

Eta aztertzeke gai gehiago agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko hirurak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.